

PASADIZUAK

1

Mediku jauna, nire andrea
zein azkar dozun osatu!
- Atsotu dala esan deusat ta
ez da gehiago kexatu.

2

Zu al zaitugu herri honetan
txakurren pelukerua?
- Bai neu naz, Txanton, hau azkena
da
ta zeu zara hurrengua.

3

Esaminetan maixuak Yoni:
esaizu: guk zenbat begi?
- Lau, maixu jauna, berorrenak bi
eta nireak beste bi.

4

Zuen etxean danak al dauke
errezatzeko ohitura?
- Txakurrak eta asto-txarriak
ondo jan eta logura.

5

Hau soldautzako suerte galanta:
"Tú, direktor de pabrika"
- Bai zera, Lontxo! Hauxe esan
deuk:
"Tú, direkto a Aprika"

6

Dozenatxo bat arrautza, Joxpa,
nahi neukez egunekoak.
- Arrautzarik ez dabe egiten
gauetz gurean oiloak.

7

Aitak ta amak ume polit bat
Parisen erosi dabe.
- Pobrea danak dana etxean,
ume txikia bada be.

8

Nik urtean behin harrapatzen dot
sekulako bronkitisa.
- Nik egunero hiru-lau bider,
ez dok ezautzen Felisa.

9

Autortu eta zelan leiteke
atera umore txarra?
- Hau komedia! Kredo bat jakin
ta hiru esan beharra!

A. Martzel